

| | | |
|--------------------------------------|-----------------------|-------------------|
| Irakasgaiaren izena | Kodea | Ikasturtea |
| GORPUTZ ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA | 141244 | 2024-25 |
| Titulazioa | Maila | Seihilekoa |
| LEHEN HEZKUNTZA | 3 | 2 |
| Irakasgai mota | ECTS Kredituak | Hizkuntza |
| HEZIKETA FISIKO AIPAMENEKOA | 6 | EUSKARA |
| Irakaslea(k) | | |
| JUNE KORTAZAR ZABALA | | |

Justifikazioa

“Gorputz adierazpena eta komunikazioa” ikasgaia, Heziketa Fisikoko curriculumaren atal bezala aztertuko dugu, adierazpen eta arte-ekintzen dominioaren barruan. Konpetentzia motorraren dimentsio sozioemozionalean sakonduko dugu, nor bere burua hobeto ezagutzeko eta beste gorputzekin harreman jarreran jartzeko. Gorputza, naturaltasunez edo intentziaz erabiliko dugu, komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko.

Gorputz lengoaiaren teknika, sakonean landuko dugu, adierazpen eta komunikazio aniztasunak baloratzu eta adierazpen-artistiko diziplinak erabiliz.

Ikasgaiaren zehar, “talde lana” konpetentzia orokorra landuko dugu, elkarlaneko ikaskuntza sustatuz eta lankidetzaren aktiboan jarduten.

Aurrebaldintzak

Ez

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

- **TALDE LANA:** Menderatze maila 2: Taldea sendotzen eta garatzen laguntzea, komunikazioa, zereginen banaketa orekatua, barruko giroa eta kohesioa sustatuz.

Berriazko gaitasunak

- Gorputz Hezkuntzako arlotik, Lehen hezkuntzako ikasle aniztasuna ulertzera eta desberdintasun kulturalen aberastasuna baloratzera zuzendutako jarduerak proposatzea.
- Jarduerak motorrak eta talde lanaren bitartez, garapen emozionala sustatzeko hezkuntza egoerak diseinatzea.

- Elkarbizitza – prozesuak erregulatu eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko gaitasuna garatzeko, jarduera motorrak erabiltzea.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudatoki si' Helburuen presentzia ikasgaietan



1.2.3. 3. GIH | Osasuna eta ongizatea | Bizitza osasuntsua bermatzea eta guztion ongizatea sustatzea adin guztietan

Ikasgai honetan, ikasleak gorputza bere osotasunean ulertuko du, alderdi soziala, emozionala, kognitibo eta fisikoa landuz eta ikaslearen ongizatean duen garrantziaz hausnartuz.

Garrantzi handikoa da norberaren gorputza ulertzea eta balioestea, aniztasun estetikoak onartuz, auto-konzeptu on bat garatu ahal izateko eta gorputzarengan dauden jarrera diskriminatzaile zein kaltegarriak ekiditeko.



LSH | Hezkuntza ekologikoa

Edukiak

1. Gorputz adierazpenaren kontzeptualizazioa.
2. Gorputz adierazpena Lehen Hezkuntzan.
3. Gorputz adierazpenaren oinarritzko printzipioak.
4. Sormenaren metodologia
5. Dantza
6. Erritmoa.
7. Dramatizazioa eta beste baliabide artistikoak.
8. Ikas egoeraren diseinua eta planifikazioa.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Seihilekoan erabilitako estrategia, eduki teorikoen eta lan praktikoen mailakako eta paraleloko garapena sustatzen du. Horretarako, hurrengo ikas-metodoak eta teknikak erabiliko dira:

- **Aurretiko ideien azterketa:** Ikasleek, talde lanean, hausnarketak eta eztabaidak kontrastatuko dituzte, ikasleen aurrezagutzak eta aurreiritziak azaleratuz. Lehen eztabaida hauek, alde batetik Gorputz Adierazpen kontzeptuari buruz hitz egingo dute euren esperientziekin loturak eginez, aurreiritziak azaleratuko dituzte, zalantzak eta argitu beharreko topikoak bereiziz.
- **Oinarritzko testuen irakurketa eta analisia:** Konpetentzien garapena bultzatzeko, oinarri teorikoaren eraikuntzari ekingo diogu lehenik eta behin. Horretarako, ikasleek taldeka, irakasleak eskainitako oinarritzko dokumentazioaren irakurketa eta azterketa lana egin beharko dute (77/2023 DEKRETUA eta beste artikulua).

- **Esposizioa:** Kontzeptualizazio lana egingo da irakaslearen azalpenen bitartez. Kontzeptualizazio lan honek, Gorputz adierazpenaren espezifikotasunean progresiboki sakontzera eramango gaitu.
- **Talde esperimentazio aktiboa:** Teorian ikasitakoa praktikan jartzea beharrezkoa da, askotan praktika hori fisikoa eta taldekakoa izanda. Kontzeptu teorikoen aplikazioa egingo dugu, aniztasunerako eta elkarbizitzarako irakaskuntza estrategietan sakonduz, ikasleen esposizioen bidez, ariketa praktikoen bidez eta AOI metodoan lan eginez.
- **Aplikazioa eta transferentzia:** Ikasgaiaren zehar lortutako ezagutza teorikoen transferentziak egiteko, proposamen praktikoen baten diseinua egingo dute. Lehen Hezkuntzako dekretua aintzat hartuz, Unitate Didaktiko bat taldeka egingo dute non Gorputz Adierazpenaren edukiak agertuko diren.
- **Feedback eta finkatzea:** Praktika fisikoaren ostean eta frogaren espezifikoen ostean, taldeka hausnarketak egingo dituzte, teoriarekin erlazioan duten eta finkatzeko, ikasleek ariketa berriak edo baieztapen berriak sortuko dituzte.
- **Aurkezpen formala:**
 - Ebaluazio frogaren espezifikoa 1:** Taldeka, Lehen Hezkuntzarako Gorputz adierazpeneko ikas egoera diseinatzea.
 - Ebaluazio frogaren espezifikoa 2:** Binaka, Bitakora koadernoak sortu.
 - Aurkezpen praktikoa:** Taldeka, Gorputz Sorkuntzak aurkeztu.
- **Talde lanaren koebaluazioa eta kontratuaren garapena:** Gaitasun orokorra lantzeko asmoz, txosten hauek entregatu beharko dituzte talde eta taldekide guztiek.
- **Ebaluazioa:** Saio praktikoen eta aurkezpen formalen ostean, ikasleek eta irakasleek, egindako lanaren ebaluazioa egingo dute, aurretik eskainitako ebaluazio irizpideak kontuan harturik. Irakasleek hobekuntzarako orientabideak emango dizkie.

Ikasgaiaren 6ECTS kontuan harturik, 150 orduak honela banatuta daude:

- Orduak eta jarduerak gela barruan: 60 ordu
 - Esposizioak: 13 ordu
 - Jarduera praktikoa: 31,15 ordu
 - Behaketak eta Hausnarketak: 3,45 ordu
 - Ebaluatze jarduerak: 9 ordu
 - Tutoretza jarduerak: 3 ordu
- Orduak eta jarduerak gelaz kanpo: 90 ordu
 - Ikasketa eta berrikusketa pertsonala: 18 ordu.
 - Jarduera praktikoen prestaketak: 13 ordu.
 - Behaketak eta Hausnarketak: 15 ordu.
 - Ebaluatze jarduerak: 24 ordu.
 - Tutoretza jarduerak: 10 ordu.
- Bitakora Koadernoak: 10 ordu.

Ebaluazioa

Hurrengo teknika eta kalifikazio prozeduren bitartez ebaluatuko dira gaitasuna orokorra eta gaitasun espezifikoak:

- **Gaitasun Orokorra (Talde lana) %10:** Taldekako kontratua eta koebaluazioa%10a
- **Gaitasun espezifiko 1(Gorputz Hezkuntzako arlotik, Lehen hezkuntzako ikasleen aniztasuna ulertzea eta desberdintasun kulturalen aberastasuna baloratzera zuzendutako jarduera motorrak proposatzea) %40:** Ikas egoera lanaren %10a, Bitakora koadernoaren %25 eta ikasgelan parte hartzeko jarduerak eta sorkuntzen %5a
- **Gaitasun espezifiko 2 (Jarduera motorrak eta talde lanaren bitartez, garapen emozionala sustatzeko hezkuntza egoerak diseinatzea) % 25:** Ikas egoera lanaren %20a eta Bitakora koadernoaren %5a.
- **Gaitasun espezifiko 3 (Elkarbizitza – prozesuak erregulatu eta gatatzak modu baketsuan konpontzeko gaitasuna garatzeko, jarduera motorrak erabiltzea) %25:** Ikasgelan parte hartzeko jardueren eta sorkuntzen %25a

EBALUAZIO SISTEMA:

1.- Ebaluazio froga espezifikoak 1 (%30): IKAS EGOERAREN LANA (taldeka) ALUD BITARTEZ ENTREGATUKO DA.

2.- Ebaluazio froga espezifikoa 2 (%30): BITAKORA KOADERNOAREN LANA (binaka) ALUD BITARTEZ ENTREGATZEN DA.

3.- Ikasgelan parte hartzeko jarduerak eta Sorkuntzak (taldeka eta banaka) %30: SAIO PRAKTIKOETAN EGITEKOAK DIRA.

4.- Kontratua eta koebaluazioa (%10): ALUDEN BITARTEZ ENTREGATUKO DA (taldeka eta banaka).

Ikasgaia gainditzeko ohiko deialdian, 10 puntuaziotik 5 bat atera beharko da. Atal guztiak gaindituta egon beharko dira batez bestekoa egiteko. Ikasgelan parte hartzeko jarduerak izango da atal bakarra gainditu barik, batez bestekoa egingo dena (1go deialditik 2.deialdira berreskuratzeko aukerarik ez baitago)

Ikasgaia gainditzeko ezohiko deialdian, ohiko deialdiaren eskaera berdinak jarraituko dira. Ez gainditutako atalak berriro egin eta gainditu beharko dituzte. Salbuespenak barne, beti ezarritako gaitasun orokorraren arabera, ebaluazio desberdina adostuko da.

Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea.

Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikularen arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Dokumentazioa

Jardueren jarraipen ona egiteko eta programaren baldintzak betetzeko, ikaslea honako dokumentazioarekin gidatuko da.

- Ikasgaiaren materiala ALUD plataforman eskegita.
- Lehen Hezkuntzako dekretua zehaztuta.
- Oinarrizko bibliografia.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA:

- Arteaga, M., Viciano, V. y Conde, J. (2006). Desarrollo de la expresividad corporal, tratamiento globalizador. Barcelona: Inde.
- Bossu, H. y Chalaguier, C. (1987). La expresión corporal. Método y práctica. Barcelona: Martínez Roca.
- Cachadiña, M., Rodríguez, J. & Ruano, K.. (2006). La expresión corporal en clase de Educación Física. Edit: Deportiva Wanceulen.
- Calmels, D. (2004). El juego corporal en los primeros años de vida. Buenos Aires: Biblos.
- Cañizares, J.M. & Carbonero, C. (2016). Expresión Corporal en la edad escolar. Sevilla: Wanceulen.
- Cañizares, J.M. & Carbonero, C. (2016). Capacidades perceptivo motrices, esquema corporal y lateralidad en la infancia. Sevilla: Wanceulen.
- Carbajal, L. (2008). Hablar con el cuerpo: la expresión corporal un camino hacia el bienestar. Barcelona: Comanegra.
- Castañer, M (2000). Expresión Corporal y Danza. Barcelona: inde.
- Cervera, J. (1991). Cómo practicar la dramatización con niños de 4 a 14 años. Madrid: Cincel.
- Cifo, M.I. (2016). Actividades físico expresivas. Murcia: Servicio de publicaciones Universidad de Murcia.
- Conesa, E. (2017). Juegos y ejercicios de expresión corporal. Murcia: Universidad de Murcia.
- Chalmers, D. (2011). Guía práctica para enseñar teatro a niños y niñas de infantil. Barcelona: Gráo.
- Chazin, S.M. (2007). Juegos de expresión corporal para niños. Madrid: CCS.
- Forner, A. (1987). La comunicación no verbal. Actividades para la escuela. Barcelona: Gráo.
- García, C. & Sánchez, A. (2010). Expresión y comunicación. Madrid: Mc Graw-Hill.
- Hugas, A. y Batle, C. (1996). La danza y el lenguaje del cuerpo en la educación infantil. Madrid: Celeste.
- Jaques- Dalcroze, E. (2017). Rítmica y creación: gesto, movimiento y forma. Madrid: La pajarita de papel.
- Kalmar, D. & Gubbay, M. (2017). El movimiento en la educación : el arte de las consignas en la expresión corporal, la comunicación y otras disciplinas. Buenos Aires: Ediciones novedades educativas.
- López, R., Gordillo, F. & Grau, M. (2016). Comportamiento no verbal: más allá de la comunicación y el lenguaje. Madrid: Pirámide, D.L.
- Manent, G. (1992). El niño y la relajación. Madrid: Mandala.
- Miraflores, E. (2004). Expresión Corporal en Primaria. Edit: CCS
- Motos, T. (1993). Iniciación a la expresión Corporal. Barcelona: Humánitas.

- Reina, R. (2017). Fundamentos teóricos de la expresión corporal. Madrid: Pila Teleña.
- Rudolf, L. (1984). Danza educativa moderna. Barcelona: Paidós.
- Sánchez, G., Ruano, K. & Cachadiña, P. (2009). Expresión Corporal y educación. Sevilla: Wanceulen.
- Schinca, M. (2011). Manual de psicomotricidad, ritmo y expresión corporal. Madrid: Escuela española.
- Sierra, M.A., Learreta, B. & Ruano K. (2005). Los contenidos de la expresión corporal. Barcelona: Inde
- Stokoe, P. (1992). La expresión corporal en el jardín de infantes. Barcelona: Paidós.
- Tejerina, I. (1994). Dramatización y teatro infantil. Madrid: Siglo XXI.
- Tena, I. (2018). Expresión corporal desde da danza creación. Zaragoza: Prensas de la universidad de Zaragoza.
- Torres, J. (2000). Marco conceptual y curricular de la expresión corporal en educación primaria. Granada: Proyecto sur.
- Wainwright, G. (1987). El lenguaje del cuerpo. Madrid: Pirámide.